

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein enpresa ereduren bihotza, ez baitago enpresarik hauek gabe iraungo duenik. Gure kasuan, zerbitzua adin ezberdinetako pertsoneri zuzenduta egongo da; hau da, ez gara merkatu segmentu bakarrean arituko eta dibertsifikatu egingo gara. Horren arrazoi nagusia honako hau da: kontsumitzaileak izango du aukera aukeraketa bat egiteko bere beharraren eta egoeraren arabera.

Gainera, gure merkatu segmentuan ez dira zerbitzuaren erabilpenean kontuan izango zenbait irizpide: geografikoak, demografikoak (adina, sexua) eta sozioekonomikoak (errenta, hezkuntza-maila) beste askoren artean, klase sozial guztientzak bideratua egongo baita.

Hala eta guztiz ere esan dezekegu, batez ere, gehien bat gazteak (9 urte baino gehiagokoak) eta umeak dituzten familiak izango direla gure merkatu segmentu nagusia, hau da, hauek izango dira gure bezerorik garrantzitsuenak. Izan ere, gure enpresaren iraupena hauen menpe egongo da; gazteak eta familiak gero eta gehiago kontsumitu gure zerbitzua, orduan eta diru-sarrera gehiago izango ditugu. Baina, zergatik bideratu gara merkatu segmentu honetara? Oso erraza da galdera honi erantzutea. Askotan, asteburua iritsi eta zer egin ez dakitela geratzen dira zenbait familia eta lagun talde. Zerbait ezberdina egiteko gogoia izaten dute eta iruditzen zaigu gure zerbitzuak arazoi hori konpontzeko balioko duela.

Bestalde, zenbait pertsonen buruaustekak murrizteko balio duen tresna da. Etxetik mugitu ere egin gabe, mugikorra soilik erabiliaz, ekintza antolatua izango lukete. Kontuan izango dira kontsumitzaileen beharrak; pertsona guztiak ezberdinak baitira, eta, gainera, desberdina izango da pertsona horrek duen konpainiaren arabera. Esaterako, familiek aukeratzen dituzten ekintza motak eta gazteek aukeratzen dituztenak ez dira berdinak izango. Familiei, gehienbat, dibertitzeko ekintzak gustatzen zaizkie eta gazteei, berriz, berdin zaie zer ekintza mota izan. Horretaz aparte, familietako haurren adinaren arabera, ekintza batzuk arriskutsuak edo desegokiak izan daitezke.